



Lide Leibar-Igone Campos eta Iñigo Lariz-Igor Alzelai Euskal Herriko Taldekako Txapelkun haizeak baldintzatutako Regil Zeharkaldian

2018ko martxoak 13. Euskal Mendizale Federazioaren mendi eskiko 2018ko Txapelketetan azkena, taldekakoa, joan den asteburuan ospatu da Europako Mendietan, Regil Zeharkaldiaren 43. edizioan. Haizete handiek baldintzatutako proba izan da aurtengoa, ibilbideak asko aldatu eta egokitzera.

Baldintzak baldintza, proba egin zen larunbatean, eta Manu Merillas eta Wilfrid Jumere bikotea izan zen azkarrena gizonetzkoetan, eta euskal selekzioko Lide Leibar eta Igone Camposek osatutakoa emakumezkoetan. Regil Saria Manu Merillas atleta leondarrak jaso zuen.

Euskal Herriko Taldekako txapelkunak kategoria bakoitzean hauek izan dira:

SENIOR

Lide Leibar-Igone Campos
Iñigo Lariz-Igor Alzelai

BETERANO

Mikel Navarro-Juanjo
Goikoetxea

JUNIOR

Aitor Ajuria-Ibai Otaegi

Euskal Kopa 2018

2018ko Euskal Kopa lehiaketa honekin erabaki da. Lau proba jokatura, Causiat Extreme, Bandres-Karolo, Alti-Toy eta Regil, hona irabazleak:

SENIOR

Igone Campos
Iñigo Lariz

BETERANO

Izaskun Zubizarreta
Igor Alzelai

JUNIOR

Nerea García
Aitor Ajuria

PROMESA

Janire Aguirre
Iñaki Mendizabal

Martxoak 18: EMF-ren XL. Zeharkaldia Panticosan

Mendi Eskiko denboraldia bere azken txanpara arrimatzen ari da. Martxoaren 25ean Espainiako Taldekako txapelketa jokatu da Candanchun, eta han itxiko du denboraldia Euskal Selekzioak.

Martxoaren 18a da beste egun seinalatua: Euskal Mendizale Federazioaren XL. Zeharkaldia egingo da egun horretan, Panticosan.



	Proba	EH Txapelketa	EH Kopa	Esp Txapelketa	Munduko Kopa
01-13	Open Vall de Boí Boí Taüll			Bertikala	
01-14	Open Vall de Boí Boí Taüll			Sprint	
01-27	World Cup Andorra Font Blanca				Open Banaka eta Bertikala
02-03	Causiat Extreme Candanchu	Banakakoa	1.a	Banakakoa	
02-17	Bandres-Karolo Izaba				
02-18	Bandres-Karolo Memoriala Izaba	Bertikala	2.a		
03-03	Alti Toy Luz Ardiden				
03-04	Alti Toy Luz Ardiden		3.a		
03-10	Andres de Régil Europako Haitza	Taldeka	4.a		
03-18	EMF XL Zeharkaldia Panticosa				
03-25	Rally V.de Aragón Candanchu			Taldeka	



Mendi Eskiko Euskal Taldea



EMF-FVM